

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktua aurrera ateratzeko baliabideak hainbat dira, fisikoak, intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

- **Giza baliabidea**

Giza baliabideak gure produktuaren eboluzioa ona izateko parte hartzen duten gizaki guztiak dira, hau da enpresako langile guztiak. Bertako langile bakoitzak rol desberdin bat izango du bere gain, esaterako, ekoizpen lanak, giza baliabidei erreparatutako jarduerak, finantzei erlazionatutako zereginak, marketinari lotutakoak, etab. Giza baliabideen barruan empresan, maila baxueneko rolak dituzten langileetatik, rol garrantzitsuenak dituzten langileak sartzen dira.



- **Baliabide fisikoak**

Langile batzuk ere baliabide fisikoen barnean sartzen dira, zehazki lan fisikoa egiten duten langileak. Hala nola, esku-lanak egiten dituzten langileak, hau da eskuz produktuak lantzen eta egiten dituzten langileak. Gure enpresaren kasuan, betaurrekoan muntatzen ariko diren langileak lirateke arlo honen barrukoak, hasiera batean 3 langile izango lirateke, gure produktuaren eboluzioaren arabera, langile kopurua aldatzen joango ginateke.

- **Baliabide intelektualak**

Baliabide fisikoen arloan sartzen ez diren langileak, baliabide intelektualen atalean sartzen dira normalean. Hauek, lan fiskorik egiten ez dutenez, beraien lana pentsatzean oinarritzen da, beraien ideiak eta ezagutzak mahai gainean jarritz eta horiek garatzen saiatuz.



- **Baliabide fisikoak**

Nahiz eta baliabide fisiko batzuk langileak izan, badira beste baliabide fisiko batzuk horien gain. Adibidez, makinak arlo honen barruan sartzen dira, baita bulegoko materialak, etab. Hauek, behar-beharrezkoak dira enpresaren funtzionamendurako eta batez ere gure produktua aurrera ateratzeko garaian.

- **Baliabide finantzak**

Baliabide finantzen barruan, aurrezkiak eta maileguak sartzen dira esaterako, hauen bidez, gure enpresak dirua lortzea du helburu. Izan ere, guk oraintxe unibertsitatea bukatu dugunez, ez dugu diru askorik, beraz maileguen bidez gure enpresa aurrera ateratzea izango da gure xedea eta gure aurrezki gutxiekin ere hori lortzen saiatuko gara. Mailegua lortzeko, gure canvas eredua aurkeztuko diegu finantza erakunde desberdinei.

